

# Idazlanak zuzentzeko txantiloia

Idazlan batean **ZER** esaten den eta **ZELAN** esaten den aztertu eta ebaluatu egiten da.

Irakasleok, normalean, **ZUZENTASUNA**ri buruzkoa oharrak jartzen ditugu idazlanetan:

- **H** - ~~dikzionario~~ **Hiztegi** arazoren bat.
- **A** - Aditzen bat txarto ~~daude~~ dago. Morfologia
- **D** - Deklinabide ~~akatsaren~~ akatsen bat.
- **S** - Sintaxi edo joskera arazoren bat. Ere esaldiaren ordena desegokia izan daiteke; esaterako, Badago problema bat oso larria dela.
- **O** - ~~Hortografia~~ ~~akatzak~~ akatsak.
- **I** - Idazkera, kaligrafia. Batzuetan, bereziki txarra denean, idazlana ulertzeko arazo bihurtzen da idazkera.

Izan ere, idazlan bateko arazorik larrienetakoa idatzitakoa ulergaitza izatea da.

- **U** - Ulergaitza. U (Testu zati bat ulergaitza denan, malo!)
- **K** - Koherentzia. Batzuetan beti testu koherentzia falta eskasa antzematen da. Pertsona aldaketa xebreak antzematen ditut. Aditz aspektua edo aditzaren tenpusean jauzi arraroak zeuden ere bai.
- **KK** - Kohesioa. Badago lotura logikoa ezarria esaldien artean.

**EGOKITASUNA.** Idazlan batean **gaiari eutsi** egin behar zaio. Onartzen dira digresioak baina neurritz, ezin gara abarretatik galdu.

Testu-tipo bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta ezin dugu, esate baterako, gutun formal batean lagunarteko hizkera erabili: “Kaixo alkate!”. Gutun formal batean, hasierako eta amaierako formulak oso finkaturik daude baina beste testu-tipoetan ere, desegokiak izan daitezkeen kontuak ager daitezke. Beste adibide bat; azalpen testu batean idazleak bere buruari buruzko azalpenak ematea gaiari buruzko azalpenak eman beharrean: “Kaixo, ni X naiz, DBH-1eko ikaslea, eta Y gaia azalduko dut...”

- **E** - Egokitasuna
- **P** - Planifikazioa. Idazleak kale egin du bere denbora-espazioa planifikatzerakoan. Atal batzuk luzeegi eta beste atal batzuk faltan.